

Enrike Zubiri “Manezaundi”.

Zenbait artikulu

MARIAM ANTOÑANA ÁBALOS*

1. MANEZAUNDI, EUSKARAREN ADISKIDE

Bere idazkietan erakusten duenez, Manezaundi¹ euskaltzale sutsua izan zen, Primo de Rivera-ren diktadurapean² euskaraz idazteko debekua indarrean zegoenez gero, euskaraz idazten berandu samar hasi baldin bazen ere³. Gainera, garai hartako lehenengo urteetan eta aurrekoetan ere, pinturari⁴ emana zegoen –bere koadroei buruzko kritikak ikus daitezke orduko

* Euskal Hizkuntza eta Literatura irakaslea.

1. Enrike Zubiri Gortari “Manezaundi”, 1868.eko abuztuaren 31ean sortu zen, bataio ziurtagiriak dioenez, Donibane Garazin, hain zuzen, baina berehalaxe eraman zuten Luzaidera. Heriotzak, ordea, Iruñean harrapatuko zuen, 1943.eko abenduan, 75 urte zituelarik.

Bere bizia eta lanari buruzko datu zehatzak honako lanotan aurki daitezke: *Enrike Zubiri “Manezaundi”*. *Artikuluak*, Edizioaren prestatzailea: Rosa Mirem PAGOLA, Klasikoak, Euskal Editoreen Elkarte, Bilbo, 1990. SATRUSTEGI, Jose M^a: “Enrique Zubiri «Manezaundi». El hombre y el escritor”, in Revista *Príncipe de Viana*, 108-109 zb., Iruñea, 283, “Manezaundi” eta “Enrique Zubiri” in Revista *Príncipe de Viana*, Euskal gehigarria, 1967-IX, 19 zb., Iruñea, “Manezaundi”, in *Zeruko Argia*, 1967-X-28, 243, Iruñea, “Manezaundiren itzala” in *Diario de Navarra*, 1967-XII-22, Iruñea eta “Manezaundi’ren omenaldia” in *Diario de Navarra*, 1968-I-4, Iruñea. IRIGARAY, Anjel: “La obra literaria de Enrique Zubiri”, in Revista *Príncipe de Viana*, n^o 108-109, Iruñea, 277.

2. 1923-1930.

3. Manezaundiren garaiari buruzko azalpena in *Pablo Fermin Irigarai “Larreko”. Nafarroatik/Lekukotasuna*, Iñaki CAMINOREN edizioa, Klasikoak 61-62, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia, 1992.

4. Bere obra piktorkoari buruzko azalpena in MANTEROLA, Pedro y PAREDES, Camino: *Arte Navarra, 1850-1940*. Panorama, n^o18. Ed. Gobierno de Navarra, Departamento de Educación, Cultura y Deporte. Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de

egunkarietan—, eta idatziriko artikulua erdaraz izan ziren, gehienak hirigin-tza eta arteari buruzkoak, nahiz euskal gaiak ere garatzen dituen zenbaitetan.

Dena den, eta politikari dagokionez, askotaz ere lehenagotik izan zen mugimendu abertzaleko partaidea: bere ikasle ohia eta adiskide zuen Jabier Ciganda pintatzailearekin batera, 1915.ean Iruñeko Eusko Etxea, hots, Zapateria kalean zegoen batzokia, apaindu omen zuen, gai abertzaleei buruzko obrak eginez, batzokiko hormak edertzeko asmoz, Enrikek Cigaren laguntzaile gisa jokatzeko zuelarik⁵.

1925. urtean, “Euskararen Adiskideak” elkarte eratu zen ofizialki Nafarroan. Bilbon sortu zuten bi urte lehenago, 1923.ean, Gernikako Eusko Ikaskuntzako Batzarraren Hizkuntza Arloak hartutako erabakiaren ondorioz. Euskaltzaindiak elkarte antolatzeke ardura bere esku hartu zuen, euskararen defentsa, irakaskuntzan, batez ere, xedetzat zuelarik. Iruñeko “La Voz de Navarra” egunkariko Jesus Etayo kazetaria —zuzendaria, lau urte geroago— izendatu zuten elkarte Iruñean ere antolatzeke⁶.

Urte hartako azaroan, “La Voz de Navarra” egunkariak Euskaltzaindiaren erabakiak ematen ditu, eta bertan Intza aitaren proposamen bat azaltzen da, “Irakurle Elkarte” bat osatzearen aldekoa, alegia. Batzarreak ideia kontutan hartu eta sortzen ari den “Euskeraren Adiskideak” elkartearen esku uztea erabakitzen du⁷.

Ordukoak ere izanen ziren ospaturiko lehenengo euskal egunak, Euskaltzaindiak euskararen alde antolatuak, Etxarri-Aranatzen, maiatzean⁸, eta Donezteben, irailaren 7an⁹, bertan euskaltzainek parte hartu zutelarik eta nafar Diputazioaren onespenezekin¹⁰. Euskal jaien ondorio pozgarri bezala honako-

Viana. Pamplona, 1991. Honetaz gain: SANZ, Rosa M^a: *Exposición ENRIQUE ZUBIRI*, Pamplona, Sala de la CAN, de Castillo de Maya, del 15 al 31 de mayo de 1987 (bere obra guztien katalogoa). Zenbaiten artean: *Pintores navarros*. Caja de Ahorros Municipal de Pamplona, Pamplona, 1981. FLORES, M. “Kaperotxiki”: *Pintores vascos y no vascos*. Aurrezki Kutxa Municipal, Donostia, 1989.

5. “Llevado por la amistad con Ciga, con quien coincidía en ideas nacionalistas, pintó varios lienzos para el “batzoki” del Partido Nacionalista Vasco, (...) en paradero desconocido.”

Ikus “Zubiri Gortari, Enrique” in *Gran Enciclopedia Navarra*, Tomo XI, CAN, Pamplona, 1990.

6. Euskaltzaindiaren zuzendariak Jesús Etayori igorritako eskutitza, 1923-IV-14koa, in Euskaltzaindiaren Artxibategia.

7. Ikus “Academia de la Lengua Vasca”, in *La Voz de Navarra*, aurrerantzean, *La VN*, 1923-XI-7.

8. “El señor Campián y el padre Inza dieron cuenta ampliamente de las fiestas vascas que, costeadas por la excelentísima Diputación Foral de Navarra, y organizadas por esta Academia, se han celebrado estos días pasados en Echarri-Aranaz”. In “Vida Cultural. Academia de la Lengua Vasca”, *La VN*, 1923-VI-8.

9. Ikus: “Intza’tar Damaso, Euskaltzaindiaren izenean; Aur euskaldunen esaminak, Doneztebeko euskal-egunen aitzinean”, *La VN*, 1923-VIII-24, eta “En Santesteban, los días del Euskera”, *La VN*, 23-IX-8, 23-IX-9 eta 23-IX-11.

10. “(...) Los señores académicos Olabide, Altube, Lacombe, Landareche, Campián, Azkue, Eguzquiza, P.Inza, Bahr (correspondiente), Inzagarai, secretario, y Maidagán, subsecretario. Vimos también a los conocidos vascófilos señores Apezteguía, Goyeneche, Irigarai

ok aipatzen dira: zazpi eta hamalau bitarteko haurrek haien ama hizkuntzaz zuzen irakurtzen eta idazten ikas zezaten lortzea; ahazteko zorian zeuden hogeitahiru herri kanta berritzea eta 250 libururen banaketa, azterketak egin ondoren, saritutako haurren artean; azkenik, Aurrezki Kutxako diru-sarrerara, haur irabazleen alde egindakoa¹¹.

Hurrengo urtean ere ospatu ziren euskal jaiak, Narbarten eta Lekunberrin, alegia. Narbarten, Jose M^a Lakoizketa botanikoari omenaldia egin zitzaion¹².

Aski girotua genuen, beraz, euskaltzaleen mundua, "Euskararen Adiskideak" bazkuna ofizialki eratzea erabaki zutenerako. Elkarteari buruzko lehenengo berriak, Fermin Irigarai "Larreko"-k ematen dizkigu¹³, La Voz de Navarra-n, eta egunkariak berak ere bai¹⁴.

Bazkideen zerrendak, hurrengo urtean agertuko ziren La Voz-en, martxoaren 6, 7 eta 21ean, hain zuzen ere, Manezaundi 7koan agertu zelarik. Elkartek izandako lehenengo buruzagitza osatu zutenen izenak 6koan agertzen dira, hots: Jenaro Larratxe, Aita Damaso Inzakoa, Miguel Intxaurrondo, Miguel Esparza, Gerardo Valcarlos, Jose M^a Huarte eta Domingo Beunza. Bazkideak, pertsona letradunak izan ziren gehien batean: apezpikua bera, kanonigoak, kazetariak, medikuak, diputaduak, politikariak, artistak, irakasleak, euskaltzainak, Diputazioko funtzionariak, injenieriak, apaiz anitz, ... Beraz, euskaldun eta euskaltzale ikasiek osaturiko elkartea izan zen¹⁵.

Nafar elkarte honek euskara zaindu eta bultzatzeko kezka agertu zuen hasieratik, alderdikeria politikotik at¹⁶ eta asmo horretan lan eskerga burutu

(Don Fermin y Don Angel), a los R.R.P.P. Azpiazu y Lizarza y a otros muchos (...)", in *La VN*, 23-IX-8.

"Telegramas cursados con motivo de los días del euskera(...). Pamplona, 8.- Fiestas centenarias nos obligan permanecer en Pamplona, lamentándonos no poder tomar parte activa personal fiestas nuestra lengua vasca creadas Diputación honor viejo idioma navarro, rogándole testimonie Academia, Ayuntamiento reunidos todos nuestra adhesión.- Usechi, Baleztena, Irujo. (Dirigido al señor alcalde)". In *La VN*, 23-IX-11. Azkenean, ordezkaritza bat joan zen.

Ikus, bestalde, INTZA'tar Damaso: *Doneztebeko elizan egindako itzaldia*, eta "Euskal egunak eta euskal jaiak Donezteben, Bigarren euskalegunetako itzaldia Donezteben, 1923-garren irailean ospatuak, Bermeo, Gaubeka, 1926.

11. *La VN*, 1923-XII-21.

12. *La VN*, 1924-IX-9.

13. LARREKO: "Pro euskera", *La VN*, 1925-I-25.

14. "Se ha constituido por fin en nuestra querida Navarra la Sociedad de «Los Amigos del Euskera, Euskeraren Adiskideak», tan necesaria hoy para que no venga a tierra el más antiguo y rico monumento que nuestro pueblo posee, el milenario y venerado Euskera", in "A los Navarros", *La VN*, 25-XI-3. Ikus, bestalde, "Academia de la Lengua Vasca", *La VN*, 25-XI-6.

15. Haien artean eta buruzagitzakoez gain: Luis Goñi, Leandro Olivier, Blas Fagoaga, Remigio Mujika, Jesus Etayo, Jose Agerre, Lorenzo Oroz, Fermin Irigaray, Wenceslao Goizueta, Justo M^a Mokoroa, Mateo Mujika (Iruñeko apezpikua), Bonifacio Arbea, Joaquin Beunza, Pablo Artxanco, Enrike Zubiri, Bernardino Tirapu, Anjel Irigaray, Ignazio Baleztena, Paz de Ziganda,...

16. Ikus elkartearen araudia in "Expediente de la Asociación denominada «Los amigos del Euskera» constituida el 15 de septiembre de 1934", Gobierno Civil de Navarra, Asociaciones, Pamplona.

zuen, euskal ekitaldiak antolatuz, Iruñeko Euskal Eskolei laguntza eskainiz eta, euskararen atzerakada geldiarazi nahian, haur eta familia euskaldunei sariak emanez¹⁷.

Adibide gisa, hona hemen elkarteak antolatu eta gauzaturiko ekitaldi zenbait, 1936.ean gerla zibila gertatu zen arte:

1925.eko azaroaren 13an, Ultzamako Auzan euskal jaiak ospatu ziren¹⁸ eta lehiaketa literario bat ere burutu zuten¹⁹.

Elkartea aspaldidanik eratua baldin bazen ere, 1934.ean Nafarroako Gobernu Zibilak zirkular bat bidali zuen, honelaxe zioena: “Por la Secretaría de este Gobierno se está llevando a cabo una reorganización del servicio que se relaciona con las Asociaciones legalmente constituidas en la provincia, en cuanto se refiere a las que rigen por la Ley de 30 de junio de 1887, y con el fin de comprobar y en su caso rectificar los datos que obran en el Negociado correspondiente acerca de aquellas, he dispuesto reclamar de las Alcaldías los particulares que se consignan en estado impreso que por correo les remito. (...) Pamplona, 10 de enero de 1934. El Gobernador, R. Blanco-Fombona”, Boletín Oficial de la Provincia de Navarra, 1934-I-12, Nafarroako Artxibo Nagusia.

17. Ikus INTZA'r Damaso: *Euskeraren Adiskideak*, Artxibo historiko probintziala, karpeta pertsonala, Kaputxinoenea, Iruñea (Aita Intzak elkarteari buruz idatziriko “garbitasun labur bat” da, datarik gabea), IRIGARAY, Anjel: “Noticia del estado lingüístico de Navarra en 1935. Memoria de la Sociedad Euskeraren Adiskideak. Pamplona, 1933”, in *Euskera*, 1956. SATRUSTEGI, Jose M^a: “Euskararen Adiskideak”, in *Punto y Hora de Euskal Herria*, 96 zk., 78ko uztaila, 30, eta “Aita Intza” in *Punto y Hora de Euskal Herria*, 99 zk., 78ko abuztua, 34. ESTORNÉS ZUBIZARRETA, Idoia: “La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca (1918-1936)” in *Eusko Ikaskuntza*, 1983, 180 eta “La Construcción de una nacionalidad vasca. El autonomismo de Eusko-Ikaskuntza(1918-1931)”, *Eusko Ikaskuntza, Cuadernos de sección, Historia-Geografía*, 14, San Sebastián, 1990, 201. CHUECA INTXUSTA, Jesus P.: “Napar tokiko aginteak eta euskararen borroka Bigarren Errepublikan barrena. Hurbiltasun bat” in *Eusko Ikaskuntza, Cuadernos de sección, Historia-Geografía*, 17, San Sebastián, 1990, 43-54.

18. “Auzako Euskal-jaiaren egingarria”, *La VN*, 25-XI-12. Hona urte bereko azaroaren “Zeruko Argia”-k dakarren oharra: “Oraintxe sortu da Naparroan “Euskeraren Adiskideak” izena duan Alkartasun berri bat. Elkartasuna Napar nonnahi bizi diranentzat eta Naparrak ez diran berontan bizi diranentzat da. Alkartasun onek baztarten du politikazko gogoeta, jokera eta baita edozein itxura ere, batez ere Españaren batasunaren kaltekoa bada. Bere txede (asmoa) da euskera erakustea, oni iraunaztea, au bizkortzea ta zabaltzea. Gañera alegiña egingo du lengo oitura, jostabide ta jolasketak, musika, kanta, dantza ta pillota jokua esnarazteko. (...) Guziz ondo artua izan da Alkartasun au. Illabete bat besterik eztu sorturik eta 200 lagun-kide ta geiago ba-ditu. (...) Azaroaren 13an egin dute berriz Euskal-jai guztiz ikusgarria Auzan. (...) Intxaurrondo'ar Migel Ap. jaunak egin zuan elizako itzaldia, Larratxe'ar Jenaro jaunak pilotatokian. Intza'r Damaso Aitak zuzendu zituan euskal abesti (kanta) zar Auzako aurrak abestu zituenak, eta beronek irakurri zituan irakurtzen eta idazten garai atera zirenen eta euskera jakiteagatik saria irabazi dutenen izenak./ Gero erriko dantzari txikiekien eta Lesakako ezpata dantzariekin aurren joku ikusgarri ta bersolarien esan eder, zorrotz, gogoragariekin jai bat polita baño politagoa egin dute./ Iruñako egunari guziak eman dizkiote zorionak eman duten asiera eder gozatsuz eta guk ere biotzetik ematen dizkiegu. Ba-giñun orrelako gizon azkar batzuen bearra Naparroan euskera arrunt(txaro) galduko ez bazan, urte gutxiren buruko. Zeñen ederkí letorken gaurkoan, berorrelako Alkartasun bana, Gipuzkoa ta Bizkairako!”

19. “(...) Para el certámen de niños, consistente en un cuento y una carta escritos con ortografía de la Academia Vasca, se han presentado 24 niños: diez de Echalar, seis de Lecároz, cinco de Arrayoz y tres de Huici” (Fr. Dámase de INZA: “Certámen de escritores vascos en Navarra”, *La VN*, 25-IX-27).

1926.ean, San Ferminetako lehiaketa zientifiko, literario eta artistikora-ko, euskal gaien proposamena bere esku utzi zuten²⁰. Auritzeko euskal eguna ere ospatu zen, ekainaren 27koa, San Miguel eguna, irailaren 29an, egun honetan ere bere batzarrea burutzen zuela²¹.

1927. urtean zehar, elkarteak bere xedeari ekinez segitu zuen, Nafarroako mendialdean bere eragina zabaltzen zuela. Horrela, Bortzirietan, Baztan, Auritz, Otsagin, Leitzan, Betelu, Araitz ibarran, delegazioak eratu zituen. Euskal jaiak ere antolatu ziren: Berroetan, uztailan, Leitzan, abuztuan, eta, urtero bezalaxe, Iruñean, Mikel deunaren omenez egindakoa. Elkartearen eraginez, Iriberrin ere antolatu zituzten bertakoek. Bestalde, eta Larreko euskaltzale sutsuari esker, Diputazioak Hospitaleko apaiza euskaldun bat izendatzea lortu zuen²². Gainera, beti eginen zuen bezalaxe, haurrei euskaraz irakasten zieten familien artean diru sariak banatu zituen, aurrez-aurretik, eta euskal jaialdiko egitarauaren barne, hizkuntza maila aztertzeke frogak egiten zizkielarik²³.

1928. urtean zerturikoaren laburpena, La Voz-ek ere dakar, apirilaren 16ko alean, hain zuzen ere. Ondoko ataletan laburbiltzen ditu euskara eta euskal kulturaren alde egindako iharduerak: kultura literarioa, kultura musikala, dantzari txikiak, euskal jaiak eta sariak –euskararen aldekoak– eta euskal eskola.

Lehenengoari dagokionez, bi liburu argitaratu zituen, Blas Alegria, Lakuntzako apaizaren "Aña Mari" komedia erlijioso, eta "Euskal Abestiak", Aita Donostiak eta R.M. de Azkuek aukeratuak.

Musika arloan, txistulari bandak osatzea erdietsi zuen, musika tresnak dohainik banatuz, Betelu, Etxarri-Aranatz, Etxalar, Auza, Olague, Lantz,

20. "TEMAS VASCOS. 28.- Refranes y axiomas vascos, (...). 29.- Colección de palabras vascas, que no sean nombres propios ni de lugares, en número de 300 a 400 o más, no publicadas en el diccionario de Azkue, o, al menos, no publicadas en la acepción en que se han recogido. 30.- Composición poética vasca, en que se canten las excelencias de los Fueros de Navarra y de nuestras costumbres patriarcales. Ha de ser verso sencillo, casi vulgar, similar al usual de los versolaris, en dialecto navarro. 31.- Colección de juegos vascos, de niños de ambos sexos (...)" *La VN*, 26-1-27.

21. "Pocos fueron los socios que nos honraron con su presencia, pero con todo la asamblea estuvo muy animada. El secretario de la Junta dio detallada cuenta de la labor realizada durante el año por la Junta; de los dos concursos y tres fiestas vascas, que en menos de un año han tenido lugar; de los exámenes de niños celebrados en la Ulzama, Eguaras y Belzunce el año pasado, en Esteribar, Valderro, Burguete, Oroz-Betelu y parte de la Aezcoa y por fin en Ochagavía este año". ("Euskeraren Adiskideak", *La VN*, 26-X-1).

22. *Nafarroako Diputazioaren Aktak*, 27-XII-12koa eta *La VN*, 27-XII-16.

23. "Las fiestas vascas en Leiza", in *La VN*, 27-VIII-13.

"Esta sociedad premiará con valiosos premios en metálico a todas las familias que sigan enseñando el euskera a sus hijos en los valles de Anué, Olaibar, Esteribar, Erro, Aezcoa, Arce, Salazar, Roncal y en las villas de Burguete y Valcarlos, previa la oportuna comprobación que se hará en cada pueblo y se anunciará con anticipación.

Las personas que sigan con entusiasmo los planes de esta Sociedad pueden ayudarnos eficazmente en esta labor de euskerizar la montaña oriental de Navarra enviándonos premios en metálico, bien para toda la región, bien para un pueblo en concreto. (...)", ("Sociedad «Amigos del Euskera»", in *La VN*, 28-II-12).

Narbarte eta Iruñean. Gainera, Nafarroako mendialdeko herri garrantzitsu guzietan, txistulari banda osoak antolatzekeo asmoa ere azaltzen du eta, aldi berean, euskal dantzak berpiztekoa.

Iruñean, dantzari txikien taldea ere osatu zuten, Ignacio Baleztena, Mari-chu Viscarret, Catalina Alastuey eta Juliatxo F. Zabaletaren laguntzaz.

Anue ibarreko Olague herrian euskal egunak ospatu ziren²⁴, azaroaren 4ean, eta euskararen erabilera bultzatu eta sustatzeko, ekialdeko nafar mendialdean bizi ziren haurrei, Aurrezki kutxako libretak ireki zitzaizkien. Herriak hauexek izan ziren: Olague, Etulain, Leazkue, Lantz, Orbaizeta, Aria, Aribe, Urdaniz, Garralda, Arizu eta Otsagi.

Azkenik, Iruñean euskal eskola pribatua eratzearen aldeko kanpaina ere egin zuen. Lortuz gero, beste batzuek ere zabaltzeko asmoa agertzen du, eta Eusko Ikaskuntzari zuzendutako eskaera bat aipatzen du, hots, “Haurrentzako euskal metodoa”-z lehiaketa bat antola dezan, hoberena euskarazko eskol-ordu guztietan erabiliko zutena.

Horretaz landa, eta gainerako eskualdeetako elkarte euskaltzaleekin batera, euskal klasikoak, hala nola, Agirre, Axular, Haraneder, Mendibururen obrak, berrargitaratzeko eskaera ere egin zion Eusko Ikaskuntzari²⁵. Bestalde, mintzaldiak eta antzerkiko obrak ere antolatzekeo ardura hartu zuen.

Urte honetatik aurrera, “Federación de Acción Popular Euskerista” mugimenduko partaidea izan zen, bere batzarreetan parte hartzen zuelarik²⁶.

1929. urteari dagokionez, Abaurrea-gainean, Erro ibarran, Goiherrian eta Larraunen ospatu ziren euskal egunak, haurrei ere sariak emanaz.

Euskal egunetan, oro har, antzeko egitarauari lotzen zitzaion: Herriak elkarteko ordezkariak hartu eta gero, meza nagusia egiten zen, bertan apaizak mintzaldia euskaraz egiten zuelarik. Goizez edo arratsalde, haurren euskararen azterketa edo-ta sari banaketa burutzen zuten eta baita bertsolari saioak eta pilota partiduak ere. Gainera, txistulari, dantzari eta euskal kantei ere ematen zieten lekua, berauek berreskuratzeko segitutatako estrategiaren arabera.

Aurreko urteetan bezalaxe, lehiaketa literario bat ere antolatzeaz arduratu zen, euskal prentsaren aldekoa, hiru gairen inguruan: 1. Nor beraren herri edo lurraldeko kronika laburrak eta mamitsuak, noizbehinkako gertaerarik garrantzitsuenak kontatuz. 2. Artikulu periodistikoak, laburrak eta interesgarriak, gaia eta euskalkia norberaren aukerakoak, baina Euskaltzaindiak erabakitako ortografia gordez. 3. Harpidetza berriak bidali honako euskal astekariotara: Donostiako “Argia”, Baionako “Eskualduna” eta gainerako kultur aldizkarietara, “RIEV”, “Euskalerraren alde”, “Gure Herria” eta, azkenik, “Zeruko Argia”, “Jesusen Biotzaren Deia” eta “Jaungoikozale” erlijio aldizkarietara²⁷.

24. Egitaraua in *La VN*, 28-X-26.

25. Larratxeren eskutitza, in *La VN*, 28-II-26.

26. “Las entidades euskeristas que asume la SEV fueron: Eskualzaleen Biltzarra (1901), Jaungoiko-Zale (1912), Euskal-Esnalea (1907), Euskararen Adiskideak (1925), Euskaltzaleak (1927) y Grupo Baraibar (1928)”, in ESTORNÉS LASA, Idoia: *La construcción de una nacionalidad vasca...*, *op. cit.*, eta Eusko Ikaskuntzaren Artxibategia, Irakaskuntza saila.

27. Euskararen Adiskideak: “Concurso en favor de la Prensa Euskérica”, in *La VN*, 29-VI-28.

Hurrengo urtean, Manezaundik La Voz-en euskaraz argitaraturiko lehenengo artikulua²⁸ ageriko zen, "Euskeraren Adiskideak"-i buruzkoa, hain zuzen ere –nahiz euskaraz idazten, 1928.ean hasi zen, Baionako "Eskualduna" astekarian, alegia–, elkarte goraipatuz:

"(...) Izigarri da nola suntsitzen ari den gure eskuara ederra. (...).

Zorionez, bozkario izpi bat heldu zaizkigu hertsura huntan, gizon eskualdun huts batzu, batasun bat eginik, **Euskeraren Adiskideak** deitua, iratzartu dire eta barneko suharra ezin atxikiz alferretan, hor ditugu lan ederretan abiatuak gure eskuara maitea piztu eta hedatu nahiz!"

Irailaren 7an Eugiko euskal jaia antolatu zuten, arrakasta haundiz. Orduan, euskararen adiskideek beren iharduera Iruñean bertan ere burutzea erabakitzen dute, hiriburuan euskararen erabilerari bultzatza egitearren²⁹. Ohizkoak antolatuko dituzte, hots, azterketak, sariak eta euskal-eguna³⁰.

Errepublikako lehenbiziko urtea, errejimen politikoaren aldaketari esker, oso emankorran izanen da: Alde batetik, Iruñeko euskal eskola martxan jartzeari lotu zuen³¹; bestetik, Eusko Ikaskuntzak elebitasunaren alde antolatutako biltzarre eta ekintzetan parte hartu zuten Nafarroako euskaltzaleek, Madrileko Gobernuarengandik elebitasuna eskolan ezar zezan lotu asmoz³².

Guzti honetaz gain, bazkideek elkartearen izenean Iruñeko egunkarietan egunero edo gehienetan euskaraz zerbait argitaratzeko erabakia hartu zuten³³, eta halaxe eginen zuten, 31 eta 32. urteetan zehar, batipat, argitaratua elebidun kaleratzen zutela.

Historiako Akademia Nazionalari euskera Monumentu Nazional deklaratzeko eskatzea ere erabaki zuen, Eusko Ikaskuntzari igorritako eskutitz batean irakur daitekeenez, baina, nahiz eta haren onespena izan, indarrean zegoen legediari jarraikiz, ezin zela monumentutzat jo erantzun behar izan zion Eusko Ikaskuntzak³⁴.

28. "Nafarroko mintzoiraz", in *La VN*, 30-VI-15.

Esan bezala, Primo de Rivera-ren diktadurapen ere argitaratu zituen artikulua, baina erdaraz. Ikus Rosa Mirem PAGOLA, *op. cit.*, 13.

29. "En el presente año no quiere limitarse esta Sociedad a amparar el Euskera agonizante de algunas comarcas como Esteribar, Araquil y Oroz-Betelu, sino también estimular dentro de la capital de Navarra a los padres que con no pequeño sacrificio suyo han conseguido que sus hijos sepan y hablen Euskera, aun cuando ellos mismos no lo dominan", *La VN*, 30-IX-11.

30. "Euskararen eguna Iruñan", in *La VN*, 30-IX-27. Bertan egitaraua ageri da.

31. "Carlos III-garren etorbideko 21 zenbakia duen etxebizitzan, azaroaren 12an, Maite Mirem Saizar Andereñoaren arduraz, 4tik 12 arteko 41 haur ikasgaiak hartzen hasi ziren", in CHUECA, *op. cit.*

32. CHUECA, *op. cit.*, 46 or., "S.E.V. Azken batzarrea", in *La VN*, 31-V-6, eta Eusko Ikaskuntzaren Artxibategia, Irakaskuntza saila (Nafarroako Diputazioaren adostasuna jasoko zuten elkarte euskaltzaleek, Errepublikako Gobernuari Nafarroarentzat ere Irakaskuntzako Elebitasun Dekretua eskatzea erabaki bait zuen, David Jaime bokalal aurkezturiko mozio baten bidez. Ikus nafar Diputazioak Eusko Ikaskuntzari igorritako eskutitza, 1931-V-28koa).

33. "Euskeraren alde", in *La VN*, 31-IX-25.

34. Ikus Euskararen Adiskideak-en eskutitza, 1931-X-8koa, eta Eusko Ikaskuntzaren erantzuna, 1931-XII-21koa, Eusko Ikaskuntzaren Artxibategia, Irakaskuntza saila.

Bestalde, nafar Diputazioari eskaera bat zuzendu zioten, hots, Diputazioak hartutako erabaki orokorreki zegokienez, euskal itzulpena ere eranstekoa, eta irakaskuntza, zerbitzu erlijioso eta bestelakoetan, euskaldunak gainerako nafarren maila berean izan zitezen, baina ezetza jaso zuen eskaera harek, urteoroko 2.000 pezetako dirulaguntza, aldiz, beti bezala onesten zielarik³⁵.

Buruzagien aldaketa ere eginen zen, Aita Intzak idatziko zuen bezala, “urtarrillaren 18an”, honako jaunekin: “Larratxe’tar Jenaro J., Buru, Tirapu’tar Bernardino J., Buru-ordeko, Rotx’tar Pablo J., Diru-zai; laguntzallak: Intza’tar Damaso A., Ezkietar Joakin J., Rekalde’tar Buenabentura, Jesus’en Lagundiko A., Mujika’tar Remijio J., Goizueta’r Bentzeslao J., Baleztena’tar Ignazio J., Olibier’dar Leandro J.”³⁶.

1932.ean, Euskal Eskolek –Iruñea eta Lizarrakoak³⁷– aurrera egin zuten, neurri handi batean elkarteak –osatutako Patronato baten bidez– eskaini zien dirulaguntzari esker.

Apirilaren 30an, “Euskararen Adiskideak”-ek bere buruzagitza berri zuen hirugarren aldiz, honela osaturik gelditzen zela: “Lendakari, Fermin Irigaray jauna; bigarren lendakari, Inazio Baleztena; idazkari, Ariz’tar Xabier; lagunak, Wenzeslao Goizueta eta Remigio Mujica; Maria Paz Ziganda; Agerrre’tar Joseba; Aita Iruarritzaga; Leandro Olivier; Paul Artxanko; Doroteo Lizarrondo eta A.Intza lagunak”³⁸. Fermin Irigarai “Larreko”, Manezaundiren adiskidea, euskararen alde gehien borrokatu, idatzi eta lan egin zutenen artean koka dezakegu, Damaso Intza aitarekin batera³⁹. Elkarteak argitaratu zenbait artikulua, esaterako, mintzamoldeari begiratzuz, beraiek idatziak dirudite.

Bestalde, nafar euskaltzaleek ohizko jaien antolaketari ekin zioten, Elizondo, Erronkari, Zaraitzukoak ospatuz. Azkeneko hauetan, herri olerki lehiaketa zabaldu zuten, nafar euskalkiez eginikoei lehentasuna emanez⁴⁰.

1933.urteari gagozkiolarik, festak Garaioan, Garraldan, Abaurrea-gainean, Zaraitzun eta Izaban burutu ziren⁴¹.

Iruñeko euskal eskolan, bestetik, gero eta haur gehiago biltzen zen, Manezaundi bera, harriturik, hauxe idaztera bultzatuz:

“(…) Orai hogoi urthe erran balaute Iruñen ikhusiko ginuela hiru eskola eskualdun, berrehun haur ikasleekin, ezpaineke txokotik irriño maltzur bat ageriko zaukun gehiener, eta trufatuko ginen, ustez eta tetelekeria bat entzuten ginuela.

Bainan horra nun bat batian yendea argitzen eta eskolatzen den, zer giren eta zer ginen yakin nahiz⁴².

35. “Presupuestos (...)Estudios Vascos”. *Diputazioaren Aktak*, 31-XII-31.

36. INTZA’r Damaso, *op. cit.*

37. “Lizarrako euskal katedra eta eskola”, in CHUECA, *op. cit.*

38. “Asteko berriak”, in *Amayur*, 32-IV-30.

39. “Euskararen Adiskideak” lagunarteari buruzko azalpena ondokoan aurki daiteke: INTZA, Damaso: “«Larreko» Irigaray’tar Fermin goresgarriaren omenez”, in *Euskera*, 1973, 188-190.

40. *La VN*, 32-X-25.

41. *La VN*, 33-VI-11.

42. MANEZAUNDI: “Eskuara hedatzen”, in *La VN*, 33-XI-14.

Urte honetan ere, elkartearen buruzagitza berritu zen⁴³.

1934.etik 1936.era bitarte, Nafarroako euskaltzaleak dinamika berberari jarraituko zitzaizkion, beren biltzarrak eta ekintzak aurrera eramaten. Dena den, gerra zibila gertatu baino aurreko bi urte haietan, prentsan elkarteari buruzko berrien maiztasuna zertxobait moteldu zela aitortu behar dugu, beste urtetakoarekin alderatuz gero. Horrek pentsarazten digu jendearen indarrak ahulduz zihozela. Hala eta guztiz ere, 1935.ean euskal egunak zertu ziren Huarten⁴⁴. Urte honetako artikulua batean Manezaundi kexu agertzen da, erdaraz, Elizondoko euskaldunen egoera dela eta⁴⁵.

1936ko lehenengo sei hilabeteetan zehar egindakoaz ezer gutxi dugu aipatzeko: Elizondon, bertsolari txapelketa bati⁴⁶ laguntza eman zioten. Misioak euskaraz ere eginaraztea lortu zen berriz ere⁴⁷. Azkenik, Elizondoko Euskal Eskola irekitzea ere erdietsi zuten⁴⁸.

Deskribaturiko euskal giroa egokiena izan zitekeen, beraz, Manezaundik bere hezia euskal letretan ereiteko, eta halaxe gertatuko zen, idazteari ekin zion urteetan zehar, uzta ederra bilduko bait zuen, ia astero bere artikuluren bat argitara ematen zela. Horrez gero, Errepublika garaia⁴⁹ izan zen emankorrena, bere artikulua eta ipuin gehienek orduantxe ikusi bait zuten argia.

1936an, tamalez, zorigaitzoko gerla hura dena deuseztatzerara etorri zen, eta urte dexente iraunen zuen lo euskal heziak, berriz ere noiz ernatuko zai.

2. GURE EKARPENA

Honen bidez ezagutarazten ditugun Manezaundiren artikulua ez dira artean argitaraturiko bildumetan⁵⁰ ageri eta bilketa osoa nolabait betetzeko

43. "Ona beren izenak: Irigaray'tar Fermin jauna, Buru. Olibier'tar Leandro, Buru-ordeko. Ziganda'tar M^a Paz, neskatxa. Artxanko'tar Pablo J. Biskarret'tar Maria, neskatxa. Tirapu'tar Bernardino J. Irigaray'tar Anjel J. Baleztena'tar Ignazio J. Intza'r Damaso A. Aita Iruarizaga. Zarranz'tar Joakin, J.Arbeo'tar B., Idazkari", in INTZA'r Damaso, *op. cit.*

44. *La VN*, 35-X-1.

45. "Digamos también que en Navarra, desgraciadamente, el exotismo halla acogida favorable. No les hiere en sus fibras íntimas el abandono y desprecio de su lengua, que es la esencia de su alma, de su idiosincrasia, o que debiera serlo.

Lo demuestra la pavorosa desvasquización operada en carrera desesperada en Navarra en estos sesenta últimos años, donde trescientos pueblos han olvidado el euskera, record que nos avergüenza y abochorna. Y declaremos sin ambages que Elizondo es también uno de esos pueblos en que el vasco se pierde rápidamente, aunque parece que en estos últimos tiempos se nota alguna reacción en favor de nuestra lengua.

Pero, ¿no es vergonzoso que durante cuarenta y cinco años haya sido secretario del Valle un extraño al país, persona muy respetable, pero que desconocía en absoluto el euskera? ¿En una región de catorce pueblos que forman el Valle del Baztán, donde el noventa por ciento de sus habitantes desconocían el castellano?", "Desvasquización. El caso de Elizondo", in *La VN*, 35-XI-2.

46. "Euskeraren Adiskideak: Concurso de bertsolaris en Elizondo", *La VN*, 36-I-11.

47. *La VN*, 36-III-15 eta 17.

48. Ikus CHUECA, Jesús, *op. cit.*, 52-53.

49. II. Errepublika: 1931.eko apirilaren 14tik 1936.eko uztailaren 18 bitarte.

50. IRIGARAY, Anjel: "Manezaundiren ipuinak", in *Euskalerriko ipuinak*, bild. 1957 eta *Prosistas navarros contemporáneos*, Departamento de Cultura de la Diputación de Navarra,

xedez, beraietan falta zirenak prestatzeari ezinbestekoa eritzi diogu. Artikulu-
luez gain, bi eskutitz ere bildu ditugu, Eusko Ikaskuntzako idazkariari zu-
zendurikoak, alegia.

3. TESTU MOLDAKETA

Kasu honetan, Rosa Miren Pagolak⁵¹ erabilitako erizpideak hartu ditugu
aintzakotzat eta berdín jokatu dugu.

Testuak bere hartan utzi ditugu nagusiki, aspiraketaren afera idazleak
bere euskalkiari, hots behe-nafarrerari, zegokion ezaugarri fonetikotzat jo-
tzen bait zuen. Egin ditugun aldaketak, hauexek izan dira: leherkari aurreko
sudurkari biezpainkaria, “m”, “n” letraz eman dugu; txistukarien grafiak
frantsesekoak izanik, hots, sabai-aurreko igurzkari ahoskabera eta honen pa-
reko afrikaria “ch” eta “tch” idatzita daudelarik, guk “x” eta “tx” idatzi ditu-
gu.

Izenburu bateko r kakoxduna ere rr batez aldatu dugu.

Galde eta harridura ikurrak ere gaurkotu ditugu, hasierakoa ezabatu du-
gularik.

Zenbaitetan, gramatika okerrak agertzen direnean, bere horretan ere utzi
ditugu, pluralgilearen markaren falta, kasu (bere amaren deiak ikhatzen du-
tenak).

Bustidura kasuetan ere, berdín utzi dugu (pollitak).

Hitsturak, hitzkuntza bezalako kasuetan ere, hots, eratorritako hitzaren
lehenengo osagaiaren aldaketa fonetikoari dagokionez, aldaketa ortografiko-
rik gabe utzi dugu, idazleak berak egin bezalaxe.

Manezaundik berak azaldutako hiztegiari dagokionez, bere hartan uztea
erabaki dugu, idazleak zer zuen zailtzat edo, bere ustez, ulergaitza suerta zite-
keena antzeman ahal izateko.

4. SAILKAPENA

Sei dira aurkituriko idazlanak eta bost sailetan banatu ditugu:

- Politika
- Solasak
- Eskuara
- Kontakizuna
- Gogoetak.

Pamplona, 1958. LARREA, Jose M^a eta DIEZ DE ULTZURRUN, Pedro: *Nafarroako euskal
idazleak (I)*, Pamiela, Iruñea, 1987. PAGOLA, Rosa Mirem, *op. cit.*

51. PAGOLA, R. M.: *op. cit.*, 20-23.

Politika

*Egingo ote dugu zerbait?
(Baxenabarrako mintzairaz)*

Eskual⁵² herriko bazter guzietan ez da bertze⁵³ solasik⁵⁴. Oraikoan, gobernu errepublikanoarekin denek uste dugu eskualdunek zerbait ardietsiko⁵⁵ dugula gure lege zahar, ohidura eta mintzoaren⁵⁶ alde, zeren eta gobernuko buruzagiek hori hitzeman dutelakotz. Bainak hitzak aize zirimola⁵⁷ batek eremaiten⁵⁸ ahal ditu, hegoak zugatz⁵⁹ ostoilak⁶⁰ bezala, eta guhaurek⁶¹ ez badi-tugu elkartzen eskualdun guzien indarrak, nekez ardietsiko dugu hitz eder horien atxikar aztea.

Berma giten, beraz, lan borthitz horri, batasun hertsian⁶², besoz beso, eskual herriko eremu guzietan, begia erne eta bihotza azkar eta suhar. Erakuts dezagun gobernuari eskualdunen indarra noraino heltzen ahal den arrazoina berekin dutelarik, gure aintzineko legeak heien aztaparretatik ekarrarazteko yabeen eskuetarar, guretarar, lehen meneko heinerat⁶³.

Oinhaze⁶⁴ kiratsa da ikhustea nola ditugun gure artean berean etsaiak, eskualdun odol garbikoak bainan bihotz eihartuak⁶⁵, bere amaren deiak ukhatzen dutenak, beren barne idorra izpirik inharrosten⁶⁶ ez dena.

Aldi huntan ez balin badugu ardiesten gure nahiak erran dezagun behin bethikotz eskual herria leiza zolarat⁶⁷ doala eta handik sekulakotz ezin xutituz egon beharra.

Izigarrienik erraten ahal dena, guhaur izanen gira gaitzaren hobendunak! Ba ote liteke zerbait ahalgegarrikorik⁶⁸. Guhaurk eraikitzea gure hobia!

Gazte ez girenak eta bizian ikhusiak ikhusiz ukhakorak gira: eta gure gogoko eta bihotzeko ilhundura ez da nolanahikoan argitzen eta bozkario-

52. Eskual: euskal.

53. Bertze: beste.

54. Solasik: hizketarik.

55. Ardietsiko: erdietsiko, lortuko.

56. Mintzoaren: hizkuntzaren.

57. Zirimola: erauntsi, zurrunbilo.

58. Eremaiten: eramaten.

59. Zugatz: zuhaitz.

60. Ostoilak: osto lehorrak, orbela.

61. Guhaurek: guk geuk.

62. Hertsian: itxian, estuan.

63. Heinerat: neurrira.

64. Oinhaze: min.

65. Eihartuak: idortuak, lehortuak.

66. Inharrosten: astintzen.

67. Zolarat: hondora.

68. Ahalgegarrikorik: lotsagarriagorik.

tzen⁶⁹, bainan altxa dezagun gure bihotza, goazen beti aintzina etsitu gabe eta igurika⁷⁰ dezagun eskual herriarentzat etorkizun ederrena.

Amayur. 1931-VI-13.

Solasak

*Bazterretxetarrak*⁷¹ *karrikan*

Botigan⁷². Yinkoaktzila⁷³ egun hun⁷⁴. Bai xuri⁷⁵ ere, Yaneta. Behar nuzke espartin batzu, Manex. Holako zango ñimiño⁷⁶ eta pollitekin ez dituxu izari⁷⁷ haundikoak beharrik. Alo, alo zure ezpainenatik elhausturia⁷⁸ bethi burrustan⁷⁹, nexkato bat aitzinian⁸⁰ duzularik. Adin puska bat izanikan ere, etzira behalakoan⁸¹ ixilduko. Elhe⁸² horiek utzkizu gazteriari. Etxitela⁸³, othoi, samur⁸⁴, Yaneta. Ze nahuxu, bakotxa bere moldekoa bizi deno. Hala daiteke, ba.

Hea, gorri hok⁸⁵ pollitak eta modazkoak dituxu. Xarmanki ditut. Zonbat⁸⁶. Berrogoi sos. Horra, Manex, izan untsa⁸⁷. Goraintzi⁸⁸ etxe⁸⁹ eta kasu mihiari.

Hauxe nexkato harroa eta koska⁹⁰.

* * *

Atx!⁹¹ Debru astua: putar⁹² ukhaldi⁹³ bat ihardokitzean⁹⁴ haurren xistari⁹⁵, zamukaren⁹⁶ puntak kolpe tzar bat eman diak kokotzean.

69. **Bozkariotzen**: poztzen.

70. **Igurika**: itxoin.

71. **Bazterretxetarrak**: baserritarrak.

72. **Botigan**: dendan.

73. **Yinkoaktzila**: Jainkoak dizula.

74. **Hun**: on.

75. **Xuri**: zuri.

76. **Ñimiño**: txiki.

77. **Izari**: neurri.

78. **Elhausturia**: burrunba, zalapart, berriketa.

79. **Burrustan**: parrastan.

80. **Aitzinean**: aurrean.

81. **Behalakoan**: berehalakoan.

82. **Elhe**: hitz, berba.

83. **Etxitela**: ez zaitezela.

84. **Samur**: haserre.

85. **Hok**: hauek.

86. **Zonbat**: zenbat.

87. **Untsa**: ongi, ondo.

88. **Goraintzi**: eskuminak.

89. **Etxekoer**: etxekoer.

90. **Koska**: kaskarin, txoriburu.

91. **Atx!**: heiagorazkoa, zenbait lekutan min hartzean erabiltzen da.

92. **Putar**: ostiko.

93. **Ukhaldi**: kolpe, ukaldi.

94. **Ihardokitzean**: aurka erantzutean.

95. **Xistari**: zistada.

96. **Zamukaren**: espartzuaren.

Haurrak bethi haur, Mañex. Zauzte, zauzte; zaharo⁹⁷ batekin kenduko dauriet nik irriak. Izo, izo, astua! Ari iza⁹⁸ oraino? Hea, Erramun, pusa⁹⁹ zak bertze alderditik, bertzenaz lurrerat yuain¹⁰⁰ dituk egurrak. Aski, aski, untsa duk.

Holako lanekin behar diauk zintzurra busti. Guazen ostaturat. Hela!¹⁰¹ Atzina. Ari xirea¹⁰², Yuaniño? Ba ziek ere heldu?

Hea athea zaxu sotuan duxun hoberena, atzoko gorriño hortak. Gizona! Hau duk, hau, arno¹⁰³ goxoa. Ba eta mehia izanik ere, badik indar: ahotik ezin utzizkoa duk. Hunekin biziaren historak¹⁰⁴ aise iragaiten ahal dituk, Manex. Ba naski, Erramun.

Hea, Yuaniño, beste pinta bat.

* * *

To, Pettan, nun haila¹⁰⁵? Ahotzaineat¹⁰⁶, hea saharde¹⁰⁷ huni hortz bat beritzen ahal dakon¹⁰⁸: hautsi zika¹⁰⁹ harri bati ustegabeen kolpe bat emanez. Alo, alo, ze berri duzie gain hartan? Ze nahuk¹¹⁰ bazterretxetan gertha dadin. Bakotxak bere etxaldian ixil ixila iragaiten diauk bizia. Zeait¹¹¹ mundutik yakiteko yautsi¹¹² behar diauk humaaino¹¹³. Ba, altaa¹¹⁴, hemen ere berri gutisko, Pettan. Ihizi¹¹⁵ solasik bezik¹¹⁶ eztuk orai.

Hail gure borda gaineko pagodi hartarat, han dituk, han kalapitak¹¹⁷ ihiztariekin. Yuan den astian nik dakita zonbat urtzo¹¹⁸ hil dituzten. To, gure Yuaesek goia batez eguerditik yakiteko yautsi behar diauk humaaino. Ba, altaa, hemen ere berri gutisko, Pettan. Ihizi solasik bezik eztuk orai.

97. **Zaharo**: makil, zarta.

98. **Iza**: haiz + "a" aditzaren galda marka.

99. **Pusa**: bultza.

100. **Yuain**: joanen.

101. **Hela!**: min hartu edo pena sentitzean erabilitako interjekzioa.

102. **Xirea**: zara (zira) + "a" aditzaren galda marka.

103. **Arno**: ardo.

104. **Historak**: tristurak.

105. **Haila**: habil + "a" aditzaren galda marka.

106. **Ahozaineat**: sarda edo sahardeko hortzak konpontzen dituenarengana.

107. **Saharde**: sarda, lastoa biltzeko tresna.

108. **Dakon**: dion.

109. **Hautsi zika**: puskatu, apurtu zaio.

110. **Nahuk**: nahi duk.

111. **Zeait**: zerbait.

112. **Yautsi**: jeitsi.

113. Argitaraturiko testuan "humano" hitza agertzen zaigu, lehenengoz eta "humaaino", bigarrenez. Lehendabizikoa zuzendu dugu, bigarrena zuzena delakoan, baina ezinezkoa izan zaigu beronen esanahiaren berririk aurkitzea.

114. **Altaa**: baina, bada.

115. **Ihizi**: ehiza.

116. **Bezik**: baizik.

117. **Kalapitak**: iskanbilak, zalapartak.

118. **Urtzo**: uso.

Baniak, etxekeok ez nezaten berantets¹¹⁹. Igande artio¹²⁰, Pettan. Izan untsa, Eñaut.

* * *

Ze, hi berriz karrikan? Ehintzana¹²¹ atzo hemen egona? Ba, ala duk, Piarrex, bana gerthakari txar batek yinarazi¹²² nik. Behia alhan¹²³ zelaik gozian patar¹²⁴ gain hartan, lerratu eta herrestaka eta itzulika pentzeari¹²⁵ behiti peko¹²⁶ sasiraino yuan ziauk, eta ez dakiat lepho hezurra ez dienez¹²⁷ hautsi, buria¹²⁸ arras nekez doi-doia higitzen¹²⁹ baitu. Ehizala lotsa, Beñat, hori zerbait bihurtura dukek, eta sendagailu batekin zalu¹³⁰ sendatuko duk. To, orai diela bi urthe gauza bera gerthatu zitzakokan Ximun ehiazainari¹³¹; bere mandoa, uliz estalia, maldari behiti abiatu zitzakokan zalapartan eta harrisu bati buruz yuan zukan. Ba, eta gehiago dena zakiak¹³² lehertu eta irin guzia ixuri zukan, bidia elhur errauntsi¹³³ baten ondoa iduri. Hak ere uste zikan mandua galdu ziela, eta hor duk azkar eta xut¹³⁴ mendiari goiti eta behiti.

Ba agian hola izan daila, Piarrex.

La Voz de Navarra. 1932-X-27.

Euskara

Mendibururen eskuara

Nik aithortu behar dut deplauki¹³⁵ oraiko gipuzkoar hizkuntza doi-doia¹³⁶ erdizka ulertzen dutala. Bainan lehengoa, XVIII garren mendekoa, handizki idurikoa¹³⁷ delakotz egungo nafarrakoari aski errexki ulertzen dut.

119. Berantets: berantiar.

120. Artio: arte.

121. Ehintzana: ez hintzen+ "a" aditzaren galda marka.

122. Yinarazi: etorrarazi.

123. Alhan: bazkatzen, larrean.

124. Patar: malda.

125. Pentzeari: aldapari.

126. Peko: azpiko.

127. Dienez: duenentz.

128. Buria: burua.

129. Higitzen: mugitzen.

130. Zalu: arin, bizkor.

131. Ehiazainari: errotariari.

132. Zakiak: zakuak.

133. Errauntsi: erauntsi, ekaitz.

134. Xut: tente.

135. Deplauki: deblauki, agerian, izkutatu gabe.

136. Doi-doia: juxtu-juxtu.

137. Handizki idurikoa: oso antzekoa.

Hori gerthatzen zait Aita Mendiburu eta Larramendi idazle aiphatuekin. **Jesusen biotzaren debozioa** liburu eder eta yoria¹³⁸ argiki eta goxoki irakurtzen dut.

Eta harritzekoa da zer gerthatu ahal den berrehun urtez hainbestetaraino bertzelakatzeko¹³⁹ gipuzkoar eskuara.

Ohartzeko da, ene irakurleak, nola bi idazle omen¹⁴⁰ haundiko aiphatuek ibiltzen zuten **hatxe** hori, oraikoak hain etsai direnak. **Hizkuntza**, **horiei**, **hiltzeko**, hitz horiek, nork erran lezake gipuzkoar idazle haundi baten hitzak direla? Eta bizkitartean¹⁴¹ Larramendirenak dira. Huna bertze batzu Mendiburuena. **Hildura**, **bihotza**, **hitzketa**, **behar**.

Beha zazue, bada, gutiesten duzuen ezin onhartuzko hatxe ori, nola bat-here okhaztatu¹⁴² gabe ibili duten bi gipuzkoar ospetsu horiek. Damugarri da lehengoetarik oraikoetarako aldatze deithoragarria¹⁴³, gutarik urrundurik, zedarri¹⁴⁴ edo phezoinak¹⁴⁵ ezarririk anaien bidean, bakotxa zehiarka yuanarazteko bidexka makhurretan, behar haundiena dugularik, hizkuntzaren hurrantzea¹⁴⁶ eta elgartzea¹⁴⁷.

Yakina da ez nizala mintzo **hatxe** hortaik bakharrrik, bainan beste anitz¹⁴⁸ hitzez, Mendiburun eta Larramendin ikhusten ez ditugunak.

Bi eskualtzale suhar¹⁴⁹ horiek bazuten gogoan eskuararen bateratzeko xede samina. Hortakotz Nafarroako hitz zombait¹⁵⁰ sartu zituzten beren idaztietan. Larramendik Mendibururi bidaldu edo igorri zakon¹⁵¹ **kartan**, **Jesusen biotzaren debozioan** agertua aintzin-solas gisan (prefacio), erraiten zakon: "Ongi egin dezu Nafarroako hitzen batzuen ekartzea, egokiak diranean, eta besterik ez tanean; zeren lenbizian, ta batbatean aditzen¹⁵² ezpadira aurki (gero) adituko dira, ta geienak, dagoaneko aditzen ere badira, ta ala Euskera bide batez edertzen ta ugaritzen da." Zer elhe¹⁵³ ederrak!

Oraikoez hori ber-bera behar ginuke: Egin-ahalak egin eskuararen bate-tartzeko. Ene ustean ez da lan hain gaitza izikorrek eta uzkurrek¹⁵⁴ uste

138. Yoria: oparora.

139. Bertzelakatzeko: aldatzeko, bestelakatzeko.

140. Omen: ospe.

141. Bizkitartean: hala ere.

142. Okhaztatu: nazkatu, nahigabetu.

143. Deithoragarria: tamalgarria.

144. Zedarri: muga.

145. Phezoinak: hesiak.

146. Hurrantzea: hurbiltzea, gerturatzea.

147. Elgartzea: elkartzeta.

148. Anitz: asko.

149. Suhar: sutsu.

150. Zombait: zenbait.

151. Zakon: zion.

152. Aditzen: ulertzen.

153. Elhe: hitz, berba.

154. Uzurrek: lotsatiek, beldurtiek.

duzen bezala. Nahikunde kalipuaekin¹⁵⁵ neketasun guziak garhaitzen ahal dira bihotzeko deiak suharki galdegiten¹⁵⁶ balin badauku¹⁵⁷.

La Voz de Navarra. 1933-VI-27.

Sinatuta: M. (De Euskeraren Adiskideak).

Eskuara hedatzen

Egundaino¹⁵⁸, sekula ez dugu holakorik ikhusi. Harritzeko da eskualdun-goak zer hedadura neurri gabekoa hartzen dien¹⁵⁹ egunez egun.

Orai hogoi¹⁶⁰ urthe erran balaute Iruñen ikhusiko ginuela hiru eskola eskualdun, berrehun haur ikhasleekin, ezpaineo xokotik irriño¹⁶¹ maltzur bat ageriko zaukun¹⁶² gehiener¹⁶³, eta trufatuko ginen, ustez eta tetelekeria¹⁶⁴ bat entzuten ginuela.

Bainan, futxo!¹⁶⁵ Denborak aldatu dire, eta frogak hor ditugu berme¹⁶⁶, xut-xutak, gure lehengo sineste makhurraren xuxentzeko. Orai artio, eskualdunek begiak eta adimendua estaliak zituzten eta ilhundura osoan ginauden¹⁶⁷ axola izpirik gabe gure yendaki edo arrazaz, gure mintzairaz eta gure behialako¹⁶⁸ denboretaz, eskualdun guziek elgartuak erresuma azkar bat ginuelarik.

Bainan horra nun bat-batian yendea argitzen eta eskolatzen den, zer giren eta zer ginen yakin nahiz, eta lehia¹⁶⁹ suharrarekin errepiztu zaikigu gure aitzineko ohidura, aztura¹⁷⁰ eta mintzairaren¹⁷¹ amodio saminena. Eta itsaso uhainek lehiorrak uholde gaitzian¹⁷² gaintitzen dituzten bezala, hala, hala bazter guziak inharrosten ditu, denak eskualdungoaren gora-beheretan yakin eta ikhertu nahiz. Eta alderdi guzietan ez da bertzerik mintzo.

Hortaraino yin¹⁷³ gira, irakurleak. Eta hemendik aitzina abiadura berean yuain othe den, hori ethorkizunak ihardetsiko du. Bainan ikhusiak-ikhusi

155. Kalipuaekin: adoretzuarekin.

156. Galdegiten: eskatzen.

157. Badauku: badigu.

158. Egundaino: inoiz ez, nehoiz ez.

159. Dien: duen.

160. Hogoi: hogei.

161. Irriño: irrifarre.

162. Zaukun: zigun.

163. Gehiener: gehienoi.

164. Tetelekeria: tontakeria, ergelkeria.

165. Futxo!: alajafia!, arranopola!, demontre!

166. Berme: tinko.

167. Ginauden: geunden.

168. Behialako: aspaldiko, aintzineko.

169. Lehia: zaletasuna.

170. Aztura: ohitura, jite.

171. Mintzairaren: hizkuntzaren.

172. Gaitzian: haundian.

173. Yin: etorri.

baietz erran daiteke, deplauki. Oraiko haurrek, tarrotzen¹⁷⁴ direnean, gizonzen direlarik, zerbait ikhusiko ahal dute, gure ametsetan dagonatik.

Eskualdunak arrotz menpean bizi izan gira orai artio, bainan uzkurtasunaren¹⁷⁵ garhaitzeko eta ilhunbetatik atheratzeko ez baita eskolatzea bezalakorik, azkenian hortarat yarraiki gira. Eta gizonak argitzen direlarik, bertzeer uztartuak¹⁷⁶ dituen lokharriak urratzen ditu, izan ditezken azkarrenak izanikan ere, bere haizutasunean bizitzeko.

Hori bera gerthatu da erresuma haundienetan. Bereer¹⁷⁷ estekatuak dituzten herrialdeak azkenian nahikunde suhar eta iraunkor batekin hok oldartu zitzaizkote eta ardietsi heietarik berextea, edo bederen lotharrien lazotzea¹⁷⁸.

Hizkuntza! Hori da hastapena, lehen-leheneko beharra. Hizkuntza da arimaren elhea, eta yakina da gizonak bere mintzaira galtzen duelarik, arrotza hartuz, hunek beretzen du ez baxharrik mintzairaz, bainan yitez eta izaitetz. Hitz batez: arima bertzelakutzen zaio. Horra zer ondorio hitsak¹⁷⁹ ekharrazten dituen gure elhearen galtzeak.

Eta hemen, gure Nafarroan, lan gaitza eta luzea egin behar bada ere gehienen eskualduntzeko, ez giten¹⁸⁰ hortakotz lotsa; ez dugu etsitu behar. Egin dezagun xinurriaren lana, kantitu¹⁸¹ gabe bermatuz, nahikunde saminarekin, zazpi ahalak eginik, bururik alhatu¹⁸² gabe, tirahala.

Erein eta heda eskuara: goldea eta aitzurrarekin iraulduz gure mintzairaren alhorrian, eta ahurtaka¹⁸³ hazia ildoaskan botatuz, geroago ereintza hortarik bil dezazkegun uzta eta mozkin¹⁸⁴ nasaienak¹⁸⁵.

Yinkoak hala nahi dezala.

* * *

Behialako, de antiguos. Uhainak, olas. Leihorra, orilla, tierra en oposición a agua. Uholde, inundación. Gaingitu, rebasar, sobrepasar, exceder. Deplauki, sin reservas. Tarrotu, crecer, aumentar. Ilhunbeak, tinieblas. Lokharriak, lazos, ataduras. Urratu, desgarrar. Haizutasuna, libertad. Lazotu, aflojar. Hastapena, principio=asiera. Yite eta izaitte, carácter y ser. Bertzelakatu, hacerse otro. Kantitu gabe bermatuz, obrando sin titubear. Tirahala, a todo hacer.

La Voz de Navarra. 1933-XI-14.

174. **Tarrotzen:** haunditzen, koskortzen.

175. **Uzkurtasunaren:** adoregabeziaren.

176. **Uztartuak:** estekatuak.

177. **Bereer:** beraiei.

178. **Lazotzea:** askatzea.

179. **Hitsak:** tristeak.

180. **Giten:** gaitezen.

181. **Kantitu:** zalantzatu, kordokatu.

182. **Alhatu:** itzuli.

183. **Ahurtaka:** eskukadaka.

184. **Mozkin:** irabazi.

185. **Nasaienak:** ugarienak.

Kontakizuna

Donazarrekoa
(*Benabarreko eskuaraz*)

Ohartu ziztea, irakurleak, itsuak, okherrak eta muthiak¹⁸⁶ beste gizonek baino adimendu biziagoa dutela? Iduri luke Jainkoak emaiten dazkotela¹⁸⁷ beren hutsen ordaingoak.

Gizon hautarik bat zen Erramun, herriko arotza, sortzez okherra, baina begi bakharrarekin besteek biekin baño hobeki ikhusten zituena gauzak.

Solaskari gaitza, musulari hauta¹⁸⁸, phertsulari¹⁸⁹ bipherduna¹⁹⁰, haren ondoan zirenak bethi irritan zauden bere atheraldiak entzutean. Murduskatzen¹⁹¹ zituen prantzesa, espāñola eta biarnesa, nahiz doi-doia ulertzeko neurrian.

Igande arratsalde batez ostatuko athe aitzineko alkhian zauden Erramun eta bere zonbait adixkide, noiz eta ikhusten duten herrian sartzen arrotz bat arras itxura bitxikoa.

Makhil bat eskian¹⁹², haga¹⁹³ bat bezain luze, burian kapelu gorri haundi bat, duphin¹⁹⁴ uzkailldu¹⁹⁵ bat iduri, bizar beltz nasai¹⁹⁶ batekin, beharriak eraztunekin...

Bizkarrian, uhalekin¹⁹⁷ atxikia, zeraman kaiola haundi bat philtzar¹⁹⁸ zikhin batekin erdi estalia, eta haren barnian nekhez ikhusten ahal zen alimale¹⁹⁹ itsusi bat.

Ze errekaitu²⁰⁰ othe dugu hori? dio Erramunek, gizon herrebes²⁰¹ hura ohartzean. To, turko bat dukek, zion adixkideetarik batek. Eta Erramunek irriño bat ezpainenetan. "Hea ez othe den Izpurakoa: ni ez nuk bathere pida²⁰² olako gizonekin."

- Debrien arima, hik bethi holako atheraldiak! Erhoa hiza? Nola nahuk²⁰³ Izpuratarra izan dadin itxura hortako gizon bat?

186. Muthiak: mutuak.

187. Dazkotela: dizkiela.

188. Hauta: aparta, aukerako.

189. Phertsulari: bertsolari.

190. Bipherduna: piperduna.

191. Murduskatzen: doi-doi mintzatzen.

192. Eskian: eskuan.

193. Haga: makil.

194. Duphin: dupin, marmita.

195. Uzkailldu: lurreratu, irauli.

196. Nasai: ugari.

197. Uhalekin: gerrikoekin.

198. Philtzar: zatar, zarpazar.

199. Alimale: animalia, piztia.

200. Errekaitu: tresna, hornidura.

201. Herrebes: basati, nahasia.

202. Pida: fida.

203. Nahuk: nahi duk.

Solas huntan zirelarik heltzen da arrotza heien aitzinerat eta galdetzen du; "Monsieur le maire, s'il vous plait?"

- Ni niz, ihardesten dako batek botz larderiadun²⁰⁴ batekin. Eta arrotzak, "oh, je ne comprends mot" ihardesten du. Erramunek mothatzen dazko su-derrerat lau hizkuntzetako hitz nahastekatu hauk:

"Zeluila alkate ser, au diu biban, debru asto haundia." Turkoak azken hiru hitzak entzutean, beltzuri²⁰⁵ izpi bat agertu zuen begitartean, bainan ixildu zen.

Nahi zuen alkatearen baimena plazan mahi baten gainean kaiola ezartze-ko, eta haren barnian zuen ihizia erakutsarazteko.

Baimena ardietsi eta han landatu zen. Kaiola idekerik handik athera zuen erdi zimino, erdi xakhur itxurazko alimale bitxi bat. Buria zakurraren idurikoa, eta gorphutza ziminoarena zituen. Ba eta muthurra gorria, eta... uzkia²⁰⁶ urdin-urdina, "Mandrill" horietarik bat zen.

Ikustekoak ziren herritarren ihakintzak²⁰⁷, trufak eta irri karkailak!²⁰⁸.

Hauxe duk tresna bitxia eta itsusia, zioten denek. Jauzi eta itzulipurdi antz egin ondoan, ziminoa gathuluño²⁰⁹ bat eskian hasi zen eskatzen, eta paper batzu phertsu²¹⁰ pollitekin bira sos saltzen.

Erramunen ondotik phastu zelaik, eman zakon ziminoari ostikoño bat uzki urdin hartan, eta ausikika²¹¹ lothu zitzakon zango-sagarrari asarre gorrian.

Erramunek makhil batekin koskatu zakon muthurra borthitzki.

Ziminoa baztertu zen garrasika, eta yabea liphistan²¹² hasi eta ahantxu²¹³ pasoka²¹⁴ lothu ziren biak.

Bainan azkenian bakhiak eginik denak yuan ziren ostaturat, eta han edan eta edan ari zen alegiazko²¹⁵ turkoa.

Arnoak elhausturia phiztu zakon kalaka²¹⁶ haundian, eta mozkorrak ez baitira ahapetik mintzo, barnia deplauki erakusten baitute deusere gorde gabe, horra nun gure gaizo turko izuna²¹⁷ hasten den eskuara garbian mintzatzen denak harriturik, salbu Erramun.

- To, debrien urdia, zion hunek, ez nikan, ez, sinhesten egiazko turkoa hintzala... Nungoa hiz ba?

204. **Larderiadun:** agintedun.

205. **Beltzuri:** betondo.

206. **Uzkia:** ipurdia.

207. **Ihakintzak:** keinuak, trufak.

208. **Karkailak:** algarak.

209. **Gathuluño:** katilutxo.

210. **Phertsu:** bertso.

211. **Ausikika:** aginkadaka.

212. **Liphistan:** eztabaidan.

213. **Ahantxu:** ia.

214. **Pasoka:** zartakoka.

215. **Alegiazko:** gezurrezko.

216. **Kalaka:** zarata, berriketa.

217. **Izuna:** gezurrezko.

- Donazarrekoa! ihardesten du “turkoak”.
- Eta ze demuntreko bizia deramak zimino zikhin horrekin?
- To, biziaren nekhetasunak hortarat lotharazi nik.

Eta eskualdunen arthean den anaitasunarekin, Erramunek bethetzen zakon basoa hustu bezain sarri.

Turko gizarajoa athera zen ostatutik sigi-sagaka, harat-hunataka, doi-doia xutik egoitekoa, hordi arraila²¹⁸, kaiola bizkarrian, eta ungarritegi²¹⁹ bathetako atherbean iragan zuen gaua...

- Debriek sardakio, erraiten zuen Erramunek bere adixkideeri ere, begi ukahaldiak sekhula ez dik huts egiten. Baniakikan, ba, ni bezain turkoa zela.

- Egiazki sorgin edo azti bat hiz, Erramun, zioten harrituak haren adixkidek.

Nork erran behar zuen?

Donazarrekoa...!!!(1).

(1) Donazarre, (frantzesez Saint-Jean le Vieux), Benabarren.

Okherra, tuerto. Arotza, herrero. Murduskatu, chapurrear.

Doi-doia, lo justo. Bitxi, extraño, raro. Duphin, olla. Uzkaillu, volcar. Philtzar, trapo. Herrebes, enrevesado. Erhoa, loco. Beltzuri, fruncimiento. Izpi, casi nada. Ihizia, animal salvaje, caza. Zimino, mono. Uzka, trasero. Ihakintzak, mofas. Trufak, burlas. Karkailak, carcajadas. Ausikika, a mordiscos. Zango-sagarra, pantorrilla. Liphista, disputa. Ahantxu, casi. Alegiazko, simulado. Elhausturia, verborrea. Kalaka, hablar de carraca. Ahapetik, a calladas. Deplauki, sin reservas. Izuna, falso, postizo. Sarri, pronto, luego. Sigi-sagaka, haciendo zig-zag. Ungarritegi, estercolero. Azti, adivino.

Iruñen, 1934.eko Uztailan (sic).

“Argia”-ren egutegia. 1935. Amalagarren urtea.

Gogoetak

Oihanian

(Benabarreko eskuaraz)

Ez dut uste nehor²²⁰ badenetz²²¹ nik baino gehiago maite duenik zuhaitza. Zuhaitza! Badea²²² gauza ederragorik lur huntan?

218. Hordi arraila: oso mozkor.

219. Ungarritegi: ongarritegi.

220. Nehor: inor.

221. **Badenetz**: badenentz. Forma hau, atzizki disjuntibo bezala erabiltzen da eskuarki, “baden ala ez” perpausaren ordez, alegia. Manezaundik ere horrelaxe erabiltzen du beste hainbatetan, aditz nagusia “jakin” denean (“eta ez dakiat lepho hezurra ez dienez hautsi”, “**Bazterretxetarrak karrikan**” artikuluan, adibidez), baina ez dirudi oso egokia denik “uste izan” aditzaren pean dagoen esaldia adierazteko, “badenik” forma bait legokioko. Baliteke “-ik” atzizkiaren errepika saihesteagatik, hurrengo “maite duenik” aditzekoa, hain zuzen, Manezaundik erabilera desegokira jo behar izana.

222. **Badea**: ba al da; ba + da + “a” aditzaren galda marka.

Bere edertasunak gure begiak loriatzen²²³ ditu; bihotza bozkariotzen²²⁴. Udaminean emaiten dauku itzala, iguzkiaren phiru²²⁵ saminetarik gerizatze-ko²²⁶. Emaiten²²⁷ dauku ere osagarria, zeren eta beren ostoen arartez²²⁸ aire kutsudunak garbitzen dituelakotz. Ekhartzen dauzkigu²²⁹ halaber euriak, lur-rari emaiteko behar duen hezetasuna, nasaiki²³⁰ ihintzaturik²³¹, geroago sorrarazteko gure hazkurriaren²³² mozkinak²³³. Ikhatz eta egurrak ere, negu borthitzetan gure supazterra su-gaiez alhartzeko²³⁴.

Oihanak maite ditut oroz-gainetik: lur-rean ditugun edergailu loriagarrienak dira. Miresten ditut.

Eta gure sortherrian, Luzaiden, lerro hauk idazten ditutan tokian, Yinkoak hedatu ditu zuhaitzak, nekhez nihon²³⁵ ikhusten ahal diren oihan nasaikiak²³⁶ emanik.

Luzaideko eremuak edo lurrak Ibañetako gaineraino heltzen dira, eta hemendik harat igaitian²³⁷, bidariak ikhusten ditu begi aitzinean pagodi oihanak harrigarritzko hedaduran, mendiak ezker eta eskuin zuhaitzez estaliak; bainan nola! lur izpirik agerian utzi gabe.

Hain dira hurbilduak eta tinkiak²³⁸ nun iguzkia sekhula ez da han sartzen.

Oihana...!!! Bainan bere edertasuna alde bat utzirik, zer erraiten dauku eskualduneri...?

Ni ibiltzen niz²³⁹ oihan beltz eta itzaltsu²⁴⁰ horietan, sartzen niz zokho ilhunetan, eta noizian-behin han-hemenka ikherka ari nizalaik²⁴¹ ondo zahar baten bilha, kausitzen²⁴² ditut izigarriko loditasunezkoak. Batzu zortzi eta bederatzi metro ingururat dituztenak!

223. **Loriatzen:** izugarri pozten.

224. **Bozkariotzen:** pozten, alaitzen.

225. **Phiru:** hari, izpi.

226. **Gerizatze:** babesteko.

227. **Emaiten:** ematen.

228. **Arartez:** bitartez.

229. **Dauzkigu:** dizkigu.

230. **Nasaiki:** oparo.

231. **Ihintzaturik:** ihintzaturik, ihizaturik, ureztaturik.

232. **Hazkurriaren:** elikaduraren.

233. **Mozkinak:** etekinak.

234. **Alhartzeko:** alhartzeko, mantentzeko.

235. **Nihon:** inon.

236. **Nasaikiak:** ugariak, oparoak.

237. **Igaitian:** igotzean.

238. **Tinkiak:** tinkoak, estutuak.

239. **Niz:** naiz.

240. **Itzaltsu:** ilun, ilunbetsu.

241. **Nizalaik:** naizelarik.

242. **Kausitzen:** aurkitzen.

Ze adin othe dukete²⁴³ zuhaitz horiek? Diote zonbaitek²⁴⁴ baduzketela²⁴⁵ mila urthe baino gehiago. Eta horien aitzinian gelditzen niz harrtua, xora-tua, liluratua!

Ze gogoetak, ze oldozmenak²⁴⁶, ze oroitzapenak phizten zaizkitan adimenduan! Eta denak hitsak²⁴⁷.

Mintza ahal balite²⁴⁸...!!! Horiek dira aitzineko mendeetako Eskual Herriaren haizutasun edo azkatasunaren lekhuko biziak.

Horiek ikhusi dute Eskual Herria aberri oso-osoa, Ebroko ibaietik Adu-rerraino, denak eskualdun, denak bilduak erresuma edo nacion batian gutaz nausi, eta etsaia ausartzen bazen gure lurretan sartzea, ohiltzen²⁴⁹ ginuen, borthizki haren aitzia ihardokiturik²⁵⁰.

Horra ze oroitzapen ilhunak sor-arazten dituzten gure gogo-bihotzian oihanetako zuhaitz zaharrek, ikhustean noraino erori giren²⁵¹ oraiko egunetan, ze yauzia²⁵² egin duen leizarat gure Eskual Herri dohakabeak!²⁵³.

Nere ibilketan ithurri baten sahetsian²⁵⁴ yarri niz, eta aitzinian²⁵⁵ ikhusten dut zuhaitz bat ezin sinetsizko zahartasunezkoa. Ez du abarrik, erdi usteldua da, barnia hutsa du, goholdiz²⁵⁶ eta huntz-ostoz inguratua, lahardi²⁵⁷, laphar eta sasien arthian. Ze harrigarriko adina othe duken!!!

Ixiltasun haundi eta eder hartan entzuten dut, urrun, kask... kask... kask...! haizkoraren azantza²⁵⁸.

Han, nunbait, nik dakita nun, haizkoraria ari da zuhaitz aurthikitzen²⁵⁹ ikhatz-labearen hartzeko...

Ene bi eskuak aho sahetsetan zabalduak, bulharraren indar guziekin oihu samin bat egiten dut, eehup...! Eta , ez berehala, ikhazkinak igortzen daut bere ihardestea²⁶⁰, bizpahiru aldiz errepikatuz mendian haren oihartzuna.

Oihanak! Oihan zahar miresgarriak, maite ditzagun heien arthian direla-kotz behialako Eskual Herriaren lekhukotasun bizi bakharrak.

243. **Dukete:** Iparraldeko forma, -ke- artizkiaz osaturik, zalantza edo hipotesia adierazteko erabilia. Hegoaldean, "ote" gehi indikatiboera erabiltzen da, edo-ta ahalkera.

244. **Zonbaitek:** zenbaitek.

245. **Baduzketela:** baditzaketela. Aurrekoa bezalakoxea, pluralgileaz. Hegoaldean, ahal-keraz gain, geroaldia ere erabiltzen da (izango dituzte) zalantza adierazteko.

246. **Oldozmenak:** pentsamenduak.

247. **Hitsak:** tristeak.

248. **Mintza ahal balite:** hitz egin ahal balute (balezate).

249. **Ohiltzen:** kanporatzen.

250. **Ihardokiturik:** erantzunik.

251. **Giren:** garen.

252. **Yauzia:** saltoa.

253. **Dohakabeak:** gaixoa, zoritxarrekoa.

254. **Sahetsian:** ondoan.

255. **Aitzinian:** aitzinean, aurrean.

256. **Goholdiz:** goroldioz.

257. **Lahardi:** sasi, laphar.

258. **Azantza:** hotsa, zarata.

259. **Aurthikitzen:** botatzen.

260. **Ihardestea:** erantzuna.

Eskualdunak! Zuhaitz zahar maitagarri horien aitzinian phiztuko zau-
zie²⁶¹ abertzaletasunaren garra.

Zoazte oihanetarat.

Luzaiden, 1935-eko urrian²⁶².

"Argia"-ren egutegia. 1936.

*Eskutitzak*²⁶³

Iruñen Ostaroaren 26an 1934-an

P. Garmendia²⁶⁴ adixkideari.

Hutsak xuxendu ondoan itzultzen dauzkitzut ene idaztiaren frogak.

Ikhusten dut zure borondateak pollita khausitu duela, ba eta irakurtu
duzula ere La Voz de Navarran agertu ene idaztia, *Gure aurkhintzak*.

Ene esker beroenak.

Zurea amultsuki²⁶⁵.

EnZubiri.

Iruñen Otsailaren 2-an 1936

Pedro Garmendia jaunari

Adixkidia

Azken Revista internacional de Estudios Vascos delakoak ekhartzen
omen ditu Oihenarten atsotitzak edo refrauak.

Eta gure Irular²⁶⁶ adixkidiak erran daat²⁶⁷ banazka ere saltzen dela.

Nik nahi nuke erosi zenbaki edo número hori, eta, hala balin bada
othoizten dizut igor nezazun²⁶⁸, hemen pagatzeko a reembolso, edo zuk
errain²⁶⁹ daazun moldean haren prezioa igortzeko aitzinetik, zeren eta ez bai-
takit zonbat balio duen bakhotxak.

Barkatuko nuzu emaiten dauzutan lanaz, zuk hainbeste bethi ukhanikan
ere, bainan beharrak ausartarazi nu²⁷⁰.

Ene agur eta goraintzi amultsuenak helarazten dauzkitzut bihotzez, eta
eskerrak aitzinetik.

En Zubiri / Enrique Zubiri / Avenida Carlos III, 16, Pamplona.

261. **Zauzie:** zaizue.

262. Hona hemen Manezaundik parentesi artean emandako zenbait hitzen azalpenak:
hezetasuna, humedad; mozkinak, productos; alhartzeko, mantener; hedaduran, extensión;
tinkiak, apretados; hitsak, tristes; lekhuko, testigos; ohiltzen, expulsar; aitzia, contra; huntz-
ostoz, yedra; lahardi, zarzal; aurthikitzen, tirando; igortzen, bialtzen; behialako, de tiempos
antiguos; lekhukotasun, testimonios.

263. Eusko Ikaskuntzaren artxiboa, "Euskara" saila.

264. Pedro Garmendia Eusko Ikaskuntza Elkarteko idazkaria zen.

265. **Amultsuki:** amultsuki, maitagarriki.

266. "Irular" Aingeru Irigaray-ren goitizena da.

267. **Daat:** dit.

268. **Nezazun:** nazazun. Dena den, NOR-NORK aditz sistema erabili du hemen, berez
dagokion NOR-NORI-NORK sistemaren ordez ("diezadazun", alegia). Jakina denez, tru-
kaketa arrunta da zenbait tokitan.

269. **Errain:** erranen, esanen.

270. **Nu:** nau.

LABURPENA

Enrike Zubiri "Manezaundi"-ren zenbait artikulua dakartzagu hona, orain arteko bildumetan ageri ez direnak, alegia, bere obra osoa ezagutarazteko xedez. Manezaundi, pintatzaile ospetsua, euskaltzale fina ere izan zen eta, euskal literaturari dagokionez, emaitza ederra utzi zigun II. Errepublikako garaian zehar, batipat, argitaraturiko artikuluei esker. Dena den, askoz ere lehenagotik zebilen buru-belarri sartua mugimendu abertzale eta euskaltzalean. Izan ere, 1925.ean sorturiko "Euskararen Adiskideak" elkarteko partaidea izan zen, elkartearen asmoak bere egiten zituela, Nafarroako euskararen desagertzea galerazi eta euskal hizkuntza eta kulturari bultzada ematekoak, hain zuzen ere. Elkarreak kultur ekitaldiak bultzatu zituen, kementsu, 1936. urteko gertaerek ekimen guztiak gogorki eragotzi arte. Artikuluez gain, bi eskutiz ere jaso ditugu, Eusko Ikaskuntzako idazkariari igorritakoak.

RESUMEN

Con el fin de dar a conocer la obra completa de Enrike Zubiri "Manezaundi", aportamos algunos artículos que no aparecen recogidos en las colecciones elaboradas hasta el presente. Manezaundi, famoso pintor, fue también un entusiasta vasquista y en lo referente a las letras vascas nos dejó un importante legado, sobre todo debido a los artículos que publicó durante la IIª República. No obstante, hacía mucho más tiempo que se había adherido de lleno al movimiento nacionalista vasco y de apoyo al euskera. En efecto, fue miembro de la sociedad "Los Amigos del Euskera", surgida en 1925, haciendo suyos los objetivos de la sociedad, que consistían, principalmente, en impedir en Navarra la desaparición de la lengua vasca y darle impulso, así como promocionar la cultura propia. Esta asociación promovió con entusiasmo actividades culturales en euskera, hasta que los acontecimientos de 1936 truncaron bruscamente toda iniciativa. Además de los artículos, hemos recogido también dos cartas enviadas al secretario de la Sociedad de Estudios Vascos.

RÉSUMÉ

Afin de faire connaître l'oeuvre complète d'Enrike Zubiri, dit "Manezaundi", plusieurs de ses articles qui n'étaient pas publiés dans les recueils successifs élaborés jusqu'à présent sont présentés ci-après. Peintre renommé, "Manezaundi" fut également un passionné de la langue basque. Les articles qu'il publia à ce sujet pendant la II^{ème} République, important légat de nos jours, sont la preuve de cette passion. A l'époque, il avait déjà adhéré au mouvement nationaliste basque et à d'autres mouvements en faveur de la langue basque. En effet, il était membre de la société "Amigos del Euskera" (Amis de la Langue Basque), fondée en 1925, dont il partageait l'objectif principal, celui d'éviter la disparition de cette langue dans la Navarre, tout en favorisant son emploi et le développement de la culture qui lui est propre. L'enthousiaste initiative de cette société, consistant en des activités culturelles en

langue basque, fut cependant brusquement interrompue à cause des événements de 1936. Outre les articles, sont incluses également deux lettres que "Manezaundi" adressa au Secrétaire de la "Sociedad de Estudios Vascos" (Société d'Etudes Basques).

SUMMARY

Some articles by Enrique Zubiri "Manezaundi", which up to now have been left out from his collected works, are presented in this journal. Manezaundi, a famous painter, was also an enthusiastic Basque who left us an important legacy for the Basque culture, made up mainly of the articles published during the Second Spanish Republic. Notwithstanding that, he had for long fully joined the Nationalist Basque Movement and the support of the Basque language. He was, in fact, a member of the society "Los amigos del euskera" (Friends of Basque) founded in 1925, making his very own the objectives of the society which, in short, were the fight against the disappearance of the Basque language from Navarre and the promotion of the the Basque language and its culture proper. This association enthusiastically sponsored cultural activities in Basque until the events of 1936 brusquely stopped all initiative. Besides the articles, two letters sent to the secretary of the Society of Basque Studies are included in this paper.

